

H DBH2

2019/2020



Zuzenketarako Koaderno

Izen-deiturak:

Ikastetxea:


Taldea:

Herria:

Data:

Irakurmena

DBHko 2. maila



Jarraibideak

Proba honetan testu batzuk irakurriko dituzu eta irakurri duzunari buruzko galdera batzuei erantzungo diezu.

Galderak mota batekoak baino gehiagokoak dira. Galderetako batzuek lau erantzun dituzte aukeran, eta haietan zuzena dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Adibidez:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A. Bartzelonak bezainbat.
- B. 200 000, gutxi gorabehera.
- C. Milioi bat.
- D. Zenbait milioi.

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A. Bartzelonak bezainbat.
- B. 200 000, gutxi gorabehera.
- C. Milioi bat.
- D. Zenbait milioi.

Beste galdera batzuetan, aldiz, eskatuko dizute (E) egia edo (G) gezurra erantzutea edo erantzuna idaztea puntuak dituen gunean:

Zein da Iruñeko tokirik ezagunena?

.....



Proba hau egiteko 60 minutu dituzu.

JESSICAREN ITZALA

Francisek bakarrik egoteko beharra zuen.

Bakarrik egoteko beharra, pertsona ahal izateko, eta horrexegatik jo zuen, eguraldi kaskarra gorabehera, jolastokiko bankurik urrunenera motxila bizkarrean hartuta, burumakur eta ibilera geldoan.

Nekez lortzen da ikaslez lepo dagoen ikastetxe batean soseguz eta patxadaz egoteko tarterik, baina otsaila zen, izotza ari zuen ia-ia, eta Francisek bazekien hotzak barnean babestera behartuko zituela ikasle gehienak. Eta inor kanpora irteten ausartuta ere, seguruenik ez zen banku horretara joango, ikastetxeko eraikin nagusiaren aurre-aurrean baitzegoen eta John Feltoneko ikasleek nahiago izaten zuten bazkal orduko atsedendaldia irakasle-gelatik eta zuzendariaren bulegotik hain agerian geratzen ez zen beste edonon pasatu.

Francisi, ordea berdin zitzaion irakasleek ikusten bazuten, distantzia horretatik behinik behin; distraziorik gabe pentsatu nahi zuen, besterik ez. Eta horretan ziharduela, jarlekuan eserita, txanoa belarrietaraino tinko sartua eta te kikara bero bat esku izoztuetan, bere baitatik aterarazi zuen izaki bitxi bat ikusi zuen zelaian barrena bere jarlekurantz etortzen.

Neska bat zen, bere adin bertsukoa, eta ordu arte ikastetxean ikusi gabea bazen ere, ez zen hori deigarriena, bere janzkera baizik.

Goiza hotz-hotza izanik ere, neskak PVCzko minigona zuria zeraman –modaz zertxobait dakien edonork berehala ezagutuko zuen benetako *Mary Quant* bat zela-, kakorratzezko blusa horia, mahukarik gabe, eta sandalia irekiak. *Noranahi doala ere*, pentsatu zuen Francisek, *iritsi aurretik hormatuko da hotzaren hotzez*.

Zeharka begiratu zion eta, mutikoaren harridurarako, zuzenean berarengana zetorrela ohartu zen. Neska aurre-aurrean geratu zitzaion, eta bankuaren beste muturrean eseri zen. Jarlekuko oholtxoak izotz zuriz estaliak zeuden, baina horrek ez zion inolako trabarik egin, hantxe geratu baitzen eserita, hitz erdirik esan gabe, zelaiaz bestaldera zegoen eraikinari begira.

Francisek ez zuen konpainiarik nahi, baina jakin-min bizia piztu zitzaion. Zergatik zelai osoa zeharkatu eta bere ondoan eseri, gero txintik ere ez esateko? Eta nola arraio zitekeen hotzik ez izatea?

– Tori, edan pixka bat –esan zion kikara eskainiz–. Tea besterik ez da, baina bero-bero dago.

Neska Francisengana jiratu zen, eta gero berriz beste aldera, norekin ari ote zen ikusteko. Beste inor ez zegoela eta berari esaten ziola ohartzean, mutikoari so geratu zitzaion, aurpegian harridura nabarmen zuela.

- Nirekin... nirekin ari al zara? –galdetu zion zezelka.
- Barkatu. –Francisek eskainitako kikara kendu zuen–. Ez dut berriro egingo.
- Hara! Entzun ere entzuten didazu!
- Bai –erantzun zion Francisek–. Barka, horregatik ere.


Neskak kopeta zimurtu zuen.

- Baina... inork ez nau ikusten eta! Ezta entzuten ere!
- Ez ala?
- Ez bada... –Neskak arretaz begiratu zion–. Zu ere hilda zaude ala?
- Ez dut uste.

Francisek orduan, irribarre bortxana ahoan, te hondarrak belarretan astiro hustu, eta termoaren goialdean birarazi zuen kikara. Une ezin aproposagoa iruditu zitzaion gauzak bildu eta alde egiteko.

- Ez dut ulertzen... –Neskak Francisengan iltzatu zituen begiak.
- Hortaz... zera zaudela diozu... hilda? –errepikatu zuen Francisek axolagabe itxura egin nahirik termoa motxilan sartzen zuen bitartean.
- Zer? A bai! –Eta zalantzak uxatzeko-edo, neskak beso bat jaso eta kezkoak balira bezala zeharkatu zituen jarlekuko oholtxoak–. Baina nik ulertzen ez dudana da nola arraio ikusten nauzun. Bakarra zara!

Une batez, mugiezin geratu zen Francis, termoa esku batean eta motxila bestean, zurturik neskari begira, ikusitakoa sinetsi ezinik.



- Hilda daramadan tarte honetan –jarraitu zuen neskak–, pertsona bakar bat ere ez da ni ikusteko edo entzuteko gai izan. Bakar bat ere ez. Inoiz ez.
- A... axola al za... zaizu –esan zion Francisek zezelka– hori errepikatzea! Besoarena, alegia, jarlekua zeharkatzearena.
- Zer, hau? –Eta berriz ere pasatu zuen besoa bankuko bizkarraldetik.
- Bai, eskerrik asko.

Neskak harritu antzean begiratu zion, baina berehala argitu zitzaion aurpegia.

Andrew Norris, Jessicaren itzala.

1. Hauetako zein enuntziatuk biltzen ditu ekintzak kontakizunean gertatu ahala?
 - A. Eserlekura joan – kikara hartu – neska ikusi – hitz egin.
 - B. Neska ikusi – hitz egin – eserlekura joan – kikara hartu.
 - C. Kikara hartu – hitz egin – eserlekura joan – neska ikusi.
 - D. Hitz egin – eserlekura joan – neska ikusi – kikara hartu.

2. “*Noranahi doala ere, iritsi aurretik hormatuko da hotzaren hotzez*”. Noren hitzak dira?
 - A. Francisenak.
 - B. Mary Quantenak.
 - C. Neskarenak.
 - D. Irakaslearenak.

3. Zergatik “*hormatuko da hotzaren hotzez*” neska?
 - A. Udako arropa jantzita duelako.
 - B. *Mary Quant* estiloko arropa jantzita duelako.
 - C. Kaleko jarleku batean eserita dagoelako.
 - D. Eguraldi ona egiten duelako.

4. Nola dakigu eguraldi kaskarra egiten duela? Topatu testuan eguraldia nolakoa den adierazten duten bi esaldi.

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Erantzun zuzen <u>bat</u> .
2	Bi erantzun zuzen. Erantzun zuzenak: - “ <i>izotza ari zuen ia-ia</i> ” - “ <i>goiza hotz-hotza izanik ere</i> ” - “ <i>hormatuko da hotzaren hotzez</i> ” - “ <i>jarlekuko oholtxoak izotz zuriz estaliak</i> ” - ...

5. Testuan “Francisek ez zuen konpainiarik nahi, baina jakin-min bizia piztu zitzaion” esaten da. Nola islatzen da jakin min hori testuan?

- A. Neskari galdetzen diolako.
- B. Neskari galderak egiten dizkiolako.
- C. Bere buruari galdetzen diolako.
- D. Irakasleei galdetzen dielako.

6. Francisek hitz egiten dionean, zergatik harritzen da neska?

- A. Ikastetxe horretan inork ez duelako berarekin hitz egin nahi.
- B. Francisek ez duelako inorekin hitz egiten.
- C. Ez duelako Francis ikusten.
- D. Francisek ikusten duelako.

7. Nola frogatzen du neskek bere burua hilda dagoela? Topatu testuan neska hilda dagoela adierazten duen esaldia.

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Erantzun zuzena: “Beso bat jaso eta kezkoak balira bezala zeharkatu zituen jarlekuko oholtxoak”.

8. Francisek neskari eskerrak ematen dizkio, zergatik?

- A. Berarekin hitz egin duelako.
- B. Bere laguna izanen dela esan diolako.
- C. Neskak bera ikusteko aukera eman diolako.
- D. Bere eskaerari kasu egin diolako.

9. Bilatu testuan “bankua” hitzaren sinonimo bat.

- A. Bulego.
- B. Horma.
- C. Jarleku.
- D. Kikara.

10. Nola du izena Francisen ikastetxeak?



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Erantzun zuzena: “ <i>John Felton</i> ”.

6 HELBURU MUNDUAN POBREZIA ERAUZTEKO


Muturreko pobrezia desagerraraztea da helburua. Kontuan hartu behar da gaur egun 800 milioi pertsona baino gehiago bizi direla egunean 1,25 dolarrekin baino gutxiagorekin. Eta ez da herrialde pobretuenetako kontua bakarrik. Espainiako Estatuan, adibidez, 12,9 milioi pertsona bizi dira pobrezia edo gizarte bazterketa jasateko arriskuan.



1. Gosea amaitzea. Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundearen esanetan (FAO), 2030. urterako lor daiteke gosea desagerraraztea, baldin eta hurrengo 15 urteetan 267.000 milioi dolar inbertitzen badira urtero.




2. Edateko ura denen eskura jartzea. Lehortea da arazorik larrienetakoa, eta aurreikuspenek diote 2050. urterako ur falta kronikoa izango duten herrialdeetan biziko dela populazioaren %25.



3. Osasunerako sarbidea bermatzea. Bizi itzaropena handitzea eta haurren eta amen hilkortasuna murriztea izan dira azken urteetan arlo honetan egin diren aurrerapenik nabarmenenak.



4. Energiarako sarbidea eskuragarri jartzea. Mila milioi pertsonak ez dute argindarrerako sarbiderik munduan, halaxe dio Munduko Bankuak berriki egindako txosten batek. Arlo horretan ahalegin gehiago egin ezean, 2030. urterako 674 milioi pertsonak jarraituko dute egoera berean.



5. Kalitatezko hezkuntza bermatzea. Eskolatzeko eta alfabetatzeko tasak handitzen ari dira, nahiz eta oraindik beharrezkoa den indar egiten jarraitzea heziketarako sarbide unibertsala bermatzeko.



6. Ekoizpen eta kontsumo jasangarria. Hau da, gauza gehiago eta hobeak egitea baliabide gutxiagorekin. Nola lortzen den? Baliabideen erabilera eraginkorra sustatuta eta kontsumo arduratsua bultzatuta.

11. Zein da “erauzteko” hitzaren sinonimoa?

- A. **Desagerrarazteko.**
- B. Bizitzeko.
- C. Jartzeko.
- D. Salbatzeko.

12. Zer da FAO?

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Erantzun zuzena: <i>Elikadura eta Nekazaritzako Nazio Batuen Erakundea.</i>

13. Zenbat urtetan eta nola lortuko litzateke gosea desagerraraztea?

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Erantzun zuzen bat .
2	Bi erantzun zuzen. Erantzun zuzenak: <i>“15 urtetan” eta “267 000 milioi dolar inbertitzen badira urtero”.</i>

14. Zein da arazorik larrienetako bat?

- A. Gosea.
- B. Amen hilkortasuna.
- C. Argindarrrik eza.
- D. **Lehortea.**

15. Azaltzen diren 6 helburuetatik, zeintzuk dira “bideratuen” daudenak?

- A. Osasuna eta hezkuntza.
- B. Ura eta energia.
- C. Gosea eta hezkuntza.
- D. Energiarako sarbidea eta ura.

16. Zer da “ekoizpen eta kontsumo jasangarria”?

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Erantzun zuzena: “Gauza gehiago eta hobeak egitea baliabide gutxiagorekin”.

17. Zein da paragrafoetan dagoen testuaren helburua?

- A. Aholkuak ematea.
- B. Ideiak proposatzea.
- C. Asmoak jakinaraztea.
- D. Argudioak defendatzea.

18. Idatzi 1etik 6ra dagokion zenbakia irudiak eta esaldiak lotzeko:

	Zenbakia	
	6	(1) Gosetea.
	5	(2) Lehortea.
	1	(3) Bizi itzaropena.
	2	(4) Argindar eskuragarria.
	3	(5) Eskolatzea.
	4	(6) Kontsumo arduratsua.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0, 1 edo 2 erantzun zuzen.
1	3 edo 4 erantzun zuzen.
2	5 edo 6 erantzun zuzen.

19. 2030. urterako zer lortuko da lehenago, gosetea eraztea edo energiako sarbidea eskuragarri jartzea?

- A. Ez dakigu.
- B. Gosetea desagerraraztea.
- C. Energia eskuragarri jartzea.
- D. B eta C zuzenak dira.

20. Zein da testu honen egitura?

- A. Izenburua-azalpena-ondorioak.
- B. Izenburua-sarrera-deskribapenak.
- C. Izenburua-helburua-azalpenak.
- D. Izenburua-sarrera-helburuak.

21. Testu honek...

- A. pobreziaren deskribapena egiten du.
- B. muturreko pobreziaren definizioa ematen du.
- C. pobreziaren desagertzea aldarrikatzen du.
- D. pobrezia erazteko egitasmoaren berri ematen du.

BAL AL DAKIZU NOLA ZAINDU ZURE BEGIAK?

IKASTURTE HONETAN DENBORA ASKO EMANGO DUZU LIBURUEN AURREAN, ARBELERA BEGIRA ETA ORDENAGAILUAREN EDO TABLETAREN AURREAN JARRITA, GAUZA ASKO IKASIKO DITUZU, SEGURU, BAINA ZURE IKUSMENAK ARRETA PITTIN BAT BEHARKO DU AGIAN. JAKIN DEZAZUN.



ELKARTU EZAZU AHOLKU BAKOITZA DAGOKION MARRAZKIAREKIN

- (1)** Argi naturala ona da nire begietarako, horregatik da garrantzitsua aire zabalean denbora pasatzea, jolasean edo jarduerak eginez.
- (2)** Ez da ona ikusmenerako egunean bi ordu baino gehiago ematea telebistari, ordenagailuari, tabletari edo mugikorrari begira. Hogei minututik behin, eman atsedena begiei, eta itxaron beste hogei minutu berriz ere pantaila aurrean jartzeko.
- (3)** Paseoan, mendian edo hondartzan, eguzkiak distira handia egiten duenean, garrantzitsua da eguzki betaurrekoak erabiltzea nire begiak babesteko.
- (4)** Telebistaren pantaila zenbat eta handiagoa izan, orduan eta urrutiago eseri beharko dut. Hogeita hamabi hazbetekoa bada, gutxienez bi metrora eseri beharko nuke (zenbatekoa den seguru ez badakit, metro batekin neurtu dezaket).
- (5)** Buruko minez banabil eta begiak maiz igurtzen baditut, etxekoei esan behar diet, baliteke-eta bisita bat egin behar izatea medikuari edo okulistari.
- (6)** Irakurtzeko edo ikasteko, garrantzitsua da behar adinako argitasuna eta behar bezala bideratuta edukitzea. Ez dagoenean edo itzala dagoenean, nire begiek ahalegin handiagoa egin beharko dute eta gehiago nekatuko dira.



Erronka: ezetz lotu marrazki bakoitza dagokion aholkuarekin.

22. Zein da testuan ematen diren aholkuen helburua?

- A. Buruko mina kentzea.
- B. Osasuntsu egotea.
- C. Entretenitzea.
- D. Gure begiak zaintzea.

23. Zenbatean behin utzi behar diogu pantaila begiratzeari?

- A. 20 minutuan behin.
- B. 40 minutuan behin.
- C. Orduan behin.
- D. Bi orduan behin.

24. Testuaren arabera, non eseri behar dugu telebista ikusteko?

.....
.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra.
1	Erantzun zuzena (bai literala edo bai parafraseatua): <i>“Telebistaren pantaila zenbat eta handiago izan, orduan eta urrutiago eseri beharko dugu”. “Telebistaren tamaina kontuan hartuta, behar bezain urrun” edo antzekoak.</i>

25. Noiz joan beharko genuke okulistarenera?

- A. Begiak malkotan izanez gero.
- B. Buruko mina eta begiak malkotan izanez gero.
- C. Begiak maiz igurtziz gero.
- D. Begietan mina izanez gero.

26. “*Irakurtzeko edo ikasteko, garrantzitsua da behar adinako argitasuna edukitzea*”. Zer esan nahi du azpimarratutako esaldiak?

- A. Bonbilla asko behar ditugula.
- B. Lanpara ondo kokatu behar dugula.
- C. **Mahaigaina ondo argiztatu behar dugula.**
- D. Gauzak argi izan behar ditugula.

27. Zertarako dira eskuinaldean agertzen diren irudiak?

- A. Testua apaintzeko.
- B. **Aholkuekin lotzeko.**
- C. Entretenezeko.
- D. Ezertarako ez.

28. Nori zuzenduta dago testu hau?


- A. Edonori.
- B. Adinduei.
- C. **Ikasleei.**
- D. Haurrei.

29. Arkatz baten irudia agertzen da, zer adierazten du horrek?

.....
.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Erantzun zuzena: “ <i>Ariketa bat dela eta testua irudiekin lotu behar dela</i> ”.

30. Testuaren bukaeran proposatutako erronkari helduz, idatzi 1etik 6ra dagokion zenbakia aholkuak eta marrazkiak lotzeko.

Aholku Zenbakia	
6	
4	
3	
2	
1	
5	

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0, 1 edo 2 erantzun zuzen.
1	3 edo 4 erantzun zuzen.
2	5 edo 6 erantzun zuzen.